

ENPRESAREN KOSTUAK

Enpresa oro bezala, gureak urtea hasi aurretik aurreikuspen bat egiten du eta abiapuntu gisa izango dugun aurrekontua hainbat faktoreren arabera denez, gastuen aurreikuspen bat egingo dugu. Horrela, urte bakoitzean zenbateko diru laguntzak eskatu beharko ditugun jakingo dugu, produktuen salmentan zenbat euro lortu beharko ditugun eta abar.

Abiapuntu gisa, gure enpresak lehen 3 urteetako gastuak kalkulatu ditu. Hiru urte hauen ondoren, enpresa guztiz instalatuta egongo baita sektorean eta eskolaz kanpoko irakaskuntzan erreferente bat izango da Bizkaia mailan gutxienez.

ARGITU BEHARREKOAK

-Teknologiaren berrikuntza ez da aurreikusi dezakegun zeozer, beraz horren gastuak egoeraren arabera izango dira.

-Irakasleen soldata eta informatikoa ez dira gastu bat gure enpresarentzat izan ere hauek ez dira enpresaren diruarekin ordainduko, bezeroenarekin baizik. Orduan, guk bitartekari lana egin beharko dugu eta horren ostean irakasle ta informatiko bakoitzak ogasun sailari dagokiona deklaratu beharko dio bere kabuz.

- Apple storen inbertitutako 100 euroak urtero ordaindu beharreko zeozer da baina Play Storen ordainketa behin betikoa da.

-40 irakasle gisako gastuak izango ditugu izan ere, ordenagailu eta lokalen beharra berrogeik izango dituzte. Baliteke, horren erdi batek aparte gutxi gorabehera beste betebeharrak batzuk izatea eta gure bezeroen beharra baino ez izatea dirutxo bat lortzeko.

-Mahai eta aulkien inbertsioak nahiko urria iruditu dezakeen arren, kontuan izan behar da halako materialak egunero kalean topa ditzakegula baldintza nahiko onetan edota gure etxe propiotan erabiltzen ez diren halako hainbat elementu daudela. Beraz, gure enpresak aulkiak eta mahaiak berrerabiltzearen alde egin dezake gastuak murrizteko.

	1.URTEA	2.URTEA	3.URTE
Lokala(k) Bilbon	Bi lokal = 30.000€	Hiru lokal= 45.000€	Lau lokal = 60.000€
Lokala(k) Leioan	Bi lokal = 24.000€	Bi lokal = 12.000€	Hiru lokal= 36.000€
Lokala(k) Algortan	Bi lokal= 25.000€	Hiru lokal = 37.500€	Hiru lokal = 37.500€
Lokala(k) Urdulizen	-	Lokal bat= 10.000€	Bi lokal = 20.000€
Lokala(k) Mungian	-	Lokal bat= 10.000€	Bi lokal= 20.000€
Argindarra	400€ urtean lokal bakoitzeko = 2.400€	400€ urtean lokal bakoitzeko = 4.000€	400€ urtean lokal bakoitzeko = 5.600
Ura	300€ lokal bakoitzeko = 1.800€	300€ lokal bakoitzeko = 3.000€	300€ lokal bakoitzeko = 4.200€
Teknologia	200€ ko portatila 40 irakasleri = 8.000€ Bi proiektore lokaleko: 70*8 = 560€	200€ ko portatila 40 irakasleri = 8.000€ (beste hogeik badute) Bi proiektore lokaleko: 70*2*2= 280€ (beste lokalek badute)	200€ ko portatila 40 irakasleri = 8.000€+¿8.000€? (beste hogeita hamarrek badute baina lehen urtekoak agian berriztu behar dira)

			Bi proiektore lokaleko: 70*2*2= 280€ (beste lokalek badute)
Arbelak eta margoak	Lau arbel lokaleko: 30*4*6 = 720€ arbeletan Margoetan 400€ guztira	Lau arbel lokaleko: 30*4*4 = 480€ arbeletan Margoetan 300€ guztira	Lau arbel lokaleko: 30*4*4 = 480 arbeletan Margoetan 300€ guztira
Aulki eta mahaiak	5.000€	2.500€	2.500€
Aplikazio Informatikoak	120€ (100€ apple store eta 20€ play store)*	100€	100€
GUZTIRA	98.000€		+ ¿8.000€?

1.URTEA

Urte honetan 6 lokal alokatuko ditugu 100m karratukoak bakoitza gutxi gorabehera. Horietako bakoitzean bainugela bat egongo da, halaxe obran aurreztuko baitugu. Bainugelaz gain, lokalak beste 80-90 metro karratuko azalera bat du eta hortxe hiruzpalau gela banatzeko asmoa dugu.

Lokalen kokapenari buruz, lokal gehienak Bilbon kokatuko ditugu (urte guztietan) hortxe egongo delako bezero kopuru handiena bai Lauro, Gaztelueta, Colegio Vizcaya eta halako ikastetxe erraldoiei esker eta bai inguruko unibertsitate kopuruari esker. Halere, Algortan ere bi lokal kokatuko ditugu getxo inguruko ikasleak erakartzeko (hortik FP, institutu eta ikastetxe ugari baitaude) eta Leioan beste bi. Leioakoak, unibertsitateko ikasleei zuzenduta egongo dira bereziki, nahiz eta gainerako mailetako ikasleek ere hortxe ikasi ahalko duten.

Horretaz gain, Irakasleei hainbat material ziurtatuko dizkiegu lehen urtean eta gastu hauek ez dira datorren urteetan errepikatuko (irakasle berdinetan). Gainera, bi mila euro gehi egin dezakegun inbertsioa ditugu soberan eskatutako 100mila euroen zati handi bat erabili ondoren. Diru hori, liburuen lizentzia digitala erosteko, lokalak margoztu edota atontzeko, etab. erabiliko ditugu. Lehen urtean bi informatikorekin nahiko izango litzatekeela esango genuke.

Aplikazioak ere, lehen urtean sortuko ditugu nahiz eta taularen gainean aipatu dugun bezala, App-arekin erlazionatutako gastuak errepikakorrek diren.

2.URTEA

Urte honetan, aurreko urteko inbertsioak mantentzeaz gain (sei lokalak, app storen aplikazioa saltzeko lizentzia...) negozioa handituko dugu pixka bat.

Negozia handitzeko, alde batetik plantilla zabalduko dugu %200 batera, hau da, 60 irakasle (40 lokaletan eta 20 etxeetara joango direnak beste zeregin batzuk dituztelako) eta beste bi informatikori lekua egingo diegu ikasle kopurua era berean hazteko asmoz, noski. Bestalde, lokal berriak irekiko ditugu Algorta eta Bilbon, bezero gehien erakar ditzaketen herrietan, alegia. Alan ta guztiz ere, urte horretarako gune berriak aztertuta izango ditugu, bada, Urduliz eta Mungia inguruan lokalak irekitzeak bezeroak ekarri ahalko lizkiguke Plentzia eta ingurutik (Urduliz) eta probintziaren barnealdetik (Mungia)

Bukatzeko eta zorionez, negozioa handitu arren, azpiegituretan, hala nola, proiektore, ordenagailu, eta halakoetan egindako inbertsioa ez da handituko, mantenduko dugu baizik, irakasle eta informatiko kopurua era berean hazi delako.

3.URTEA

Urte honetan, enpresak diru gehiago izango du eta aurreko urteetako salmenta, soberakinekin etab. Irakasle eta informatikoen aurreko urteetako hamar lokalak eta aplikazioaren apple lizentzia mantentzeaz gain, lau lokal berri irekiko ditugu, bata Bilbon, beste bat Mungian eta bestea Urdulizen eta 80 irakasle eta 3 informatiko berriren inkorporazio aurreikusi dezakegulako, ordurako Bizkaian erreferentzia bat izango garelako. Aurreko urteetan bezala, irakasle orok haien teknologia baliabideak izango ditu eta lokal bakoitzak proiektoredun bi gela izango ditu.

Lokal berriak ireki ditugu, izan ere, Algortatik Plentzia alderako gunean nahiko zaindu gabea genuelako eta Bizkaia Barnealdean lokal bat gutxiegi zela uste genuelako. Bilbon beste lokal bat erostea, estrategia hutsa da, hor baitago irakasle kontzentrazio handiena

Bukatzeko, teknologia zaharkitu ezkerro (Irakasleen ordenagailuak bereziki) hamar mila euro inguru inbertitzeko prest egongo gara baina hori, behi eta berriz aipatu dugun bezala, baldintzen arabera erabaki bat izango da.

ETORKIZUNERAKO PLANGINTZA

Hiru urte horien ondoren, **gure enpresak** diru nahiko irabaziko luke **bere kabuz jasagarria** izateko. Gainera, ekintzaileok diru nahiko irabazten hasiko ginasteke ikasturte bakoitzean. **Hori dela eta, ospe eta diru nahikoa dugunez**, enpresa **eremu berrietara** irekiko genuke, **Bizkaia kanpoko, alegia Araba eta Gipuzkoako merkatuetara.**